

4. gidoia: Berdintasunaren indarra

Gidoiaren laburpena

"Berdintasunaren indarra" gidoiak lagun-talde bati jarraitzen dio, Eloik beren planei behin eta berriro ezezkoa ematearen atzean dagoen benetako zergatia zein den jakiteko. Izar artefaktua erabiliz, iraganera bidaiatuko dute, eta Eloiren zailtasun ekonomikoak agerian uzten dituzten une erabakigarriak ikusiko dituzte. Esperientzia horien bidez, enpatia eta inklusioa zeinen garrantzitsuak diren ikasiko dute.

Helburu pedagogikoa

Gidoi honen helburu pedagogikoa ikasleei enpatiaren eta inklusioaren garrantzia erakustea da, batez ere desberdintasun sozioekonomikoei dagokienez. Taldearen ekintzek eta erabakiek taldekideei nola eragin diezaieketen hausnartzea sustatzen du, eta jarduerak egokitzeko beharra nabarmentzen du, denek parte hartu ahal izan dezaten, haien egoera ekonomikoa edozein dela ere.

Eszenen taula

Eszena	Deskribapena	Elkarrizketak
E00	Kuadrilla jangelan dago, Etxepe taldearen kontzertu bat egongo dela komentatzen. Eloik esaten du ezin dela joan; besteak haserretu egiten zaizkio, eta Izar distira egiten hasten da.	<p>Gorane: Ez dakit ikusi duzuen, baina hilabete barru Etxepe taldea etorriko da kontzertu bat ematera.</p> <p>Ainara: Ederki! Orduan, ikustera joan beharko dugu. Zer diozue?</p> <p>Gainerakoak: Bai, noski, primeran!</p> <p>Eloi: Nik... ez dut uste joaterik izango dudarik.</p>

		<p>Andoni: Nola ezetz? Itzuri egiten berriro?</p> <p>Narora: Egia da; azkenaldian, ez duzu ezer egiten gurekin. Jada ez zara zinemara etortzen, azken aldian ez zinen jolas-parkera etorri...</p> <p>Gorane: Aitzakiekin zabilta beti. Ez duzu gurekin planik egin nahi, ala?</p> <p>Eloi: Sentitzen dut, baina ezin dut.</p> <p>Andoni: Sentitzea ez da nahikoa. Ez baduzu gurekin geratu nahi, esan eta kito!</p> <p>Ainara: [Izarren erreakzioa behatuz] Aizue, Izar normalean baino gehiago distiratzen ari da. Beharbada, benetan zer gertatzen ari den aztertu beharko genuke.</p>
E01	Izarrek distira egiten du eta kuadrilla –Eloi izan ezik– iraganera eramaten du. Iraganeko une horiek zuri-beltzean edo tonu okreetan adieraz daitezke. Liburutegian agertzen dira.	<p>Andoni: Itxaron, zer gertatu da? Non gaude?</p> <p>Ainara: Izarrek berriro ere zerbait egin duela esango nuke. Liburutegira telegarraiatu gaitu.</p> <p>Narora: Baina zergatik ez dago Eloi gurekin?</p> <p>Gorane: Begira, han dago, hondoan... AINARArekin?</p> <p>Ainara: Egon, egon... Gogoratzen dut une hori... Duela hilabete gertatu zen, Eloirekin zinemara joateaz hitz egin nuenean.</p> <p>Andoni: Orduan, iraganera bidali al gaitu Izarrek? Hau zer da, <i>Eguberri-kantaren</i> bertsio moderno bat?</p> <p>Narora: Entzun...</p>

		<p>[AINARAREKIN SOLASALDIA]</p> <p>Ainara: Bihar kanpoan afaltzera joango gara, eta gero zinemara, <i>Errementari</i> ikustera. Etorriko zara?</p> <p>Eloi: Ez, ezin dut; oraintxe bertan, ez daukat sarrera ordaintzeko dirurik.</p> <p>Ainara: Ba eskatu zure gurasoei!</p> <p>Eloi: Nahiago dut etxean zerbait ikusten geratu, baina besteei ez esan ezer diruari buruz.</p> <p>Andoni: Orduan, ez zeukan dirurik zinemako sarrera ordaintzeko? Zergatik ez zigun ezer esan?</p> <p>Ainara: Beharbada, lotsa ematen ziolako.</p> <p>[AUKERAK]</p> <p>[1] Eloi gabe joan ziren zinemara.</p> <p>[2] Plana aldatu zuten eta denak Andoniren etxera joan ziren film bat ikustera.</p> <p>[3] Hortik aurrerako planetan ez zioten Eloiri abisatu.</p>
E02	Oroitzapena: duela bi aste, jangelan, jolas-parkera joateko plana.	<p>Gorane: Non edo noiz gaudela esango zenukete?</p> <p>Andoni: Uste dut duela bi aste gertatu zela hori, jangelan jolas-parkera joateari buruz hitz egiten ari ginenean.</p> <p>[KUADRILLAREN SOLASALDIA]</p>

Gorane: Asteburu honetan eguraldi ona egingo du. Zer iruditzen zaizue jolas-parkera joango bagina?

Naroa: Autobusa goizean goiz hartzen badugu, egun osoa igaro ahal izango dugu bertan!

Eloi: Ni ezin izango naiz joan; ez nabil ondo diruz.

Andoni: Tira, dagoeneko gastatu egin duzu hileko paga?

Eloi: Sentitzen dut, baina ezin dut.

Gorane: Zu beti plan guztiak zapuzten!

[AUKERAK]

[1] Eloi gabe joan ziren jolas-parkera.

[2] Gasturik ez zuen plan alternatibo bat antolatu zuten.

[3] Ez zitzairen Eloiren jarrera gustatu, eta hortik aurrerako planetan hari ez abisatzea erabaki zuten.

[2. IRAKASPENA]

[ELOI BERE AMARI DEIKA ARI ZAION **ESZENA**]

Eloi: Kaixo, ama. Nire lagunek larunbatean jolas-parkera joan nahi dute egun-pasa. Joan al naiteke?

Ama: Eloi, laztana... badakizu diruarekin nolako arazoak dauzkagun! Ozta-ozta iristen gara hilabete-amaierara. Oxala, dirua utzi ahal izango bagenizu. Sentitzen dut!

		<p>[KUADRILLA]</p> <p>Gorane: Hara! Ez nekien Eloiren gurasoak diruz hain larri zebiltzanik. Orain ulertzen dut zergatik ibiltzen den beti arropa zahar berarekin.</p> <p>Naroa: Eta ni gutaz paso egiten zuela pentsatzen!</p> <p>Ainara: Nik zerbait banekien, baina ez nuen uste hain serioa zenik. Gonbidatu egin genezakeen.</p>
E03	Azken eszena jolastokian. Eloi banku batean bakarrik dago; urrutian, kuadrillako gainerakoak daude.	<p>Andoni: Non gaude orain? Ez dut hori gogoratzen!</p> <p>Naroa: Hori etorkizuna dela esango nuke; oraindik ez da gertatu. Begiratu hormako kartelari; futbol-txapelketa ez da izango bi hilabete barru arte.</p> <p>Ainara: Begira, Eloi han eserita dago. Zergatik ez dago gurekin?</p> <p>[ETORKIZUNeko KUADRILLA]</p> <p>Andoni: Begira, han dabil Eloi. Ezer ba al dakizue berari buruz?</p> <p>Gorane: Bai zera! Kontzertuaz geroztik, utzi egin diogu berarekin geratzeari.</p> <p>Naroa: Bai; azkenean, diruaren aitzakiarekin, gurekin paso egiten zuen beti.</p> <p>Ainara: Nik duela aste batzuk hitz egin nuen berarekin, baina gero eta arraroago dago; berehala haserretzen da, eta ez du inorekin egon nahi.</p> <p>[KUADRILLA]</p>

		<p>Naroa: Hori gertatuko al da? Ez da bidezkoa!</p> <p>Ainara: Hori gerta liteke Eloi gure planetatik kanpo uzten jarraitzen badugu.</p> <p>Andoni: Ez dakit nola, baina lagundu egin behar genion.</p> <p>Gorane: Bueno, hau etorkizuna bada, garaiz gabiltza, Izarrek orainaldira itzultzen bagaitu, ezta?</p> <p>[IZARREK DISTIRA EGITEN DU ETA ESZENA AMAITU EGITEN DA]</p>
E04	Hasierako eszenara itzultzen gara.	<p>Gorane: Aizu, kontzertuarena ez da hainbesterako; itzuliko dira datorren urtean...</p> <p>Naroa: Asteburu honetan musika-jaialdi bat egongo da parkean. Hara joan gintezke.</p> <p>Andoni: Jakina... eta ogitarteko eta edari batzuk eramaten baditugu, piknik bat egin ahal izango dugu!</p> <p>Eloi: Plan ona da. Gustura joango naiz!</p> <p>Ainara: [BARREZ]</p>